

# ESMERILLAKO PALANKA

## IDEIA:

- Gure taldearen ideia; tailerrean esmerillarekin gerta daitezkeen istripuak ugariak dira, istripu horiek saihesteko, "palanka" hau asmatu dugu. Harri urratzaileak eragindako arazo ugari eta larriekin amaitzeko, gure proiektuari ekin diogu. Esmerilla denek funtzionamendu bera dute, alegia denek dute arrisku bera. Arrisku horiek ordean gure proiektuaren bidez saihestu ditzakegu, tornuko palankaren sistema antzeko bat ezarriz.
- **Zer da Esmerilla bat?** Harri urratzaile bat da eta makina batean biraka hasten da guk martxan jartzean. Bere eginkizuna gure erremintak zorroztu edo piezak mekanizatzean datza. Zorrozteko ala mekanizatzerako garaian, konturatu gara gure atzaparrak arriskuan jartzen ditugula, harrira asko hurbildu behar baitugu. Gure tailerrean 2016-2017 ikasturtean hainbat istripu gertatu zirenez, honi buelta batzuk ematea beharrezkoa zela iruditu zitzaigun. Beraz, ideia hau martxan jartzea erabaki dugu.
- **Palankaren funtzioa:** Palanka honen bidez hau da guk lortu nahi duguna; norbaiti esku, eskularru edo bataren manga harrian katigatzen bazaio, palankaren bidez, harria potentziarik gabe geratzea, hau da, palanka zapaltzearekin batera indarra galtzea, zerbait okerragoa gertatu aurretik.



**Segurtasun baldintzak:** Esmerila golpera gelditzen bada harriak puskatzeko aukera handia du, hori gertatuz gero, harriak airetik aterako ziren arriskua sortuz. Honi aurka egiteko segurtasun baldintzak bete behar ditu, hau da: harri bakoitzaren gainean “pantalla” moduko bat egotea eta harria inguratzen duen karkasa bat edukitzea.